

KIROLEN ZUZENDARI NAGUSIA

Carlos SERGIO ACHOTEGUI

Durangon jaio zen 1968an

Gorputz-hezkuntzako formakuntza du: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundean eskuratu zuen lizentzia 1998an, behin irakasle-ikasketak amaitu ondoren, Giza Zientzietako espezialitatean, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan, 1991n. 2010ean, Deustuko Unibertsitatean Aisia eta Giza Baliabideak doktoregoko programa burututakoan, Ikasketa Aurreratuen Diploma – Ikertzeko Gaitasuna (IAD) eskuratu zuen.

Bere ibilbide profesionala kirolaren eta hezkuntzaren eremuan zentratu da. Durangoko Udalean kirol-monitore gisa hasi zen 92-93 ikasturtean, eta 1994az geroztik eskolak eman zituen Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan; zehazki, Adierazpen Saileko Gorputz Hezkuntza Arloan.

97-98 eta 98-99 ikasturteetan Bilboko Colegio-Seminario Resurrección María de Azkue delakoan eskolak emanez, gorputz-hezkuntzako irakasle gisa zeukan eskarmentua handitu zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

2015ean, aholkulari orokor gisa sartu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko lantaldean. Haren zeregin nagusia izan da harreman zuzena izatea Bizkaiko kirol-sistemako hainbat entitaterekin, hala nola klubekin, kirolariekin, udalekin, federazioekin eta enpresekin, kirol-garapena bere askotariko alderdietan bultzatzeko helburuarekin: hezkuntzan, lehiakortasunean, aisian eta osasunaren sustapenean.

Gainera, euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasun ertaina du. Kirolarekin eta bizimodu osasungarriaren sustapenarekin duen konpromisoa etengabeko zutabea izan da bere ibilbide profesionalean, eta beti bideratu du bere lana Bizkaiko kirol-eremua aurrerazten eta hobetzen laguntzera.